


Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización



Deba Bailarako Industrialdea, SA

2017





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURTZAPENAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	9
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	9
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	9
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	10
III.1 Kontratazioa.....	10
IV. URTEKO KONTUAK.....	11
ERANSKINAK.....	15
A.1 Araudi aplikagarria.....	15
A.2 Ibilgetuko inbertsioak.....	16
A.3 Izakinak.....	17
A.4 Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk.....	18
A.5 Taldeko enpresetan eta kideuetan eginiko epe laburreko inberts....	19
A.6 Zuzkidurak.....	19
A.7 Negozio zifraren zenbateko garbia.....	19
A.8 Langileria.....	20
A.9 Ustiapeneko beste gastu batzuk.....	20
A.10 Kontratuen analisia.....	21
ALEGAZIOAK.....	23



ABREVIATURAS	25
I. INTRODUCCIÓN.....	27
II. OPINIÓN.....	29
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de legalidad.....	29
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	29
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	30
III.1 Contratación	30
IV. CUENTAS ANUALES	31
ANEXOS	35
A.1 Normativa aplicable	35
A.2 Inversiones inmobiliarias	36
A.3 Existencias	37
A.4 Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar	38
A.5 Inversiones en empresas del grupo y asociadas a corto plazo.....	39
A.6 Provisiones	39
A.7 Importe neto de la cifra de negocios.....	39
A.8 Personal.....	40
A.9 Otros gastos de explotación.....	40
A.10 Análisis de contratos.....	41
ALEGACIONES	43



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

- EAE Euskal Autonomia Erkidegoa.
- EAEHONALTB Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina.
- KBA Kontrataziorako barne aginpideak.
- SPKLTB Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duena.
- STC-ELS, SA Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea SA.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean Epaitegia) otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onartutako Lanerako Planean jasotakoari jarraikiz, Deba Bailarako Industrialdea SAre (aurrerantzean Sozietatea) 2017ko ekitaldiko Urteko Kontuak fiskalizatu ditu.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: ezargarria den arautegia bete dela egiaztatzea aurrekontu, langileria eta ondasun eta zerbitzuko kontratuetan.
- Kontularitzakoak: urteko kontuak ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datozela egiaztatzea. Sozietateari urtero egiten diote auditoria bat; honenbestez, gure lana auditoreen lan paperak berrikustera mugatu da eta hala behar izan denean, egoki irizitako proba osagarriak egin ditugu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi dela ere, azaleratutako hutsak "Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak" idazpuruan xehetasunez jaso ditugu.

Sozietatea 1984ko irailaren 19an eratu zen eta hasiera batean Elgoibarko Industrialdea SA izena eman zitzaion.

2001ean Eibarko Industrialdea SA, Mendaroko Industrialdea SA eta Mutrikuko Industrialdea SA xurgapen bidez bat egin eta desagertu egin ziren eta euren aktibo eta pasibo guztiak oinordetza unibertsalaren bidez Elgoibarko Industrialdea SA sozietate xurgatzaileari eskualdatu zizkioten, zeinak Deba Beheko Industrialdea SA izena hartu baitzuen.

2012an Deba Beheko Industrialdea SA xurgapen bidez Deba Goienerko Industrialdea SArekin elkartu zen, zeina desegin zen sozietatearen ondarea oso-osorik Deba Beheko Industrialdea SAre eskuetara aldatuz; baturaren ondorioz, Deba Bailarako Industrialdea SA izena hartu zuen.

Sozietatea SPRI Taldeko kide da, STC-ELS SA sozietatea buru dela, eta EAERen Administrazio Orokorrak % 99,1eko partaidetza du.

2017ko abenduaren 31n akziodunen osaera honakoa da:

Euroak milakotan		
Akziodunak	% partaidetza	Zenbat.
SPRILUR, SA (*).....	% 51,00	7.585
Gipuzkoako Foru Aldundia	% 24,43	3.634
Aretxabaletak Udala	% 4,66	693
Elgoibarko Udala	% 3,17	471
Mutrikuko Udala.....	% 2,99	444
Eibarko Udala	% 2,63	391
Oñatiko Udala	% 2,59	385
Arrasateko Udala	% 2,29	341
Bergarako Udala	% 2,15	320
Eskoriatzako Udala	% 2,07	308
Mendaroko Udala	% 2,00	298
Debagoiengo Mankomunitatea	% 0,02	3
GUZTIRA	% 100	14.873

(*) STC-ELS SAK % 94ko partaidetza du Sozietatean eta EAEn Administrazio Orokorrek % 6koa.

EAEn sozietate publiko den aldetik nortasun juridiko propioa du eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren berezko gaietarako dagokienez, berariaz aplikagarri zaizkion xedapenak arautzen ditu eta horiei aurka egiten ez dietenetan, zuzenbide pribatuak arautzen du, EAEHONALTBren III. Idazpuruaren IV. Kapituluaren agindutakoari jarraikiz.

Sozietatearen helburua da industria ekimena eta inbertsioa sustatzea Debagoiengo eta Debabarrengo eskualdean, hauen bidez:

- Enpresak hartzeko lurzoru egokiaren hirigintzako sustapena eta horretarako, hirigintza planen sustapen eta idazketa eta urbanizazio, birsailkapen eta konpentsazio proiektuak edo hirigintzako legediak aurreikusten duen bestelako zeinahi molde baliatuko du; baita, lurzoru urbanizatu eta sustatzeko egokia den edozein lurzoruko jabetza erostea ere.
- Pabiloen industria-guneak eta eraikin osagarriak eraikitzea, jabetza osorik eskualdatu arte kudeatuaz.

Sozietatea Industrialdeak Programan dago eta helburua enpresa-jarduera laguntzea eta industriak dauden udalerrietako baldintza sozioekonomikoak hobetzea da.

Sortu zenetik 17 industria-poligono garatu ditu: sei Debabarrengo eskualdean eta hamaika Debagoiengo eskualdean; horietatik zortzi % 100 daude okupatuak eta sei guztiz finkatuak daude.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen ustetan, Deba Bailarako Industrialdea SAK zuzentasunez bete du 2017ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Deba Bailarako Industrialdea SAREN 2017ko ekitaldiaren Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2017ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, hor jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK

Atal honetan jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioen betetzeari nabarmen eragiten ez dioten hutsak nahiz kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak jasotzen dira.

III.1 KONTRATAZIOA

- Sozietateak ez ditu EAEko Kontratuen Erregistroan erregistratu ekitaldian gauzatutako kontratu guztiak, EAEren sektore publikoko kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 52 eta 55 artikuluetan agintzen denaren aurka.
- 2017ko ekitaldian garbiketa eta legezko aholkularitza kontratuak luzatzen jarraitu da, hurrenez hurren 2012an eta 2015ean izenpetutakoak, epemugarik gabe isilbidez luzatzeko klausulak baitzituzten. Traktu jarraituko kontratuak direla aintzat hartuta, Sozietateak kontratu horiek lizitaziora atera behar lituzke egiazko balioespen ekonomikoarekin bat datorren prozedura baliatuta eta lehia bideratuko duen denborazko mugarekin.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. URTEKO KONTUAK EGOERAREN BALANTZEA

		Euroak milakotan	
	Eransk.	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA		2.861	1.611
Ibilgetu materiala		32	35
Ibilgetuko inbertsioak.....	A.2	2.827	1.573
Epe luzeko finantza-inbertsioak.....		-	1
Geroratutako zergagatiko aktiboak.....		2	2
AKTIBO ARRUNTA		18.186	19.726
Izakinak	A.3	12.323	15.913
Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk	A.4	5.155	3.005
Taldeko enpresetan eta kide-tuetan eginiko epe laburreko inberts.....	A.5	657	725
Epe laburreko finantza-inbertsioak		2	7
Aldizkakotzeak epe laburrera		2	6
Eskudirua eta bestelako aktibo baliokideak		47	70
AKTIBOA, GUZTIRA		21.047	21.337
ONDARE GARBIA		20.435	20.950
Funts propioak		20.426	20.941
Diru-lagunt., dohaintza eta legatuak.....		9	9
PASIBO EZ-ARRUNTA		189	148
Epe luzeko hornidurak	A.6	115	110
Epe luzeko zorrak		74	38
PASIBO ARRUNTA		423	239
Epe laburreko zuzkidurak	A.6	198	124
Epe laburreko zorrak.....		26	26
Merkataritzako hartz. eta kobratzeko beste kontu batzuk		199	89
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA		21.047	21.337



GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA

		Euroak milakotan	
	Eransk.	2017	2016
Negozio zifraren zenbateko garbia	A.7	2.872	1.240
Indarreko sustapenen eta amaitutako eraik. izakinen bariazioa	A.3	(3.373)	(852)
Enpresak aktiborako egindako lanak.....	A.2	1.308	-
Hornikuntzak.....	A.3	(342)	(44)
Ustiapeneko bestelako sarrerak		1	-
Langileria-gastuak	A.8	(280)	(290)
Ustiapeneko beste gastu batzuk	A.9	(727)	(243)
Ibilgetua amortizatzea		(57)	(63)
Beste emaitza batzuk.....		(3)	2
USTIAPENAREN EMAITZA		(601)	(250)
Sarrera finantzarioak	A.4	87	56
Gastu finantzarioak		(1)	-
EMAITZA FINANTZARIOA		86	56
EMAITZA ZERGA AURRETIK		(515)	(194)
Etekinen gaineko zerga		-	-
EKITALDIKO EMAITZA		(515)	(194)

ONDARE GARBIKO ALDAKETEN EGOERA

	Euroak milakotan	
	2017	2016
1. AITORTUTAKO SARRERA ETA GASTUEN EGOERA		
A) Galera eta irabazien kontuaren emaitza	(515)	(194)
Aitortutako diru-sarrerak eta gastuak guztira	(515)	(194)


	Euroak milakotan						
	Jaulkipen			Aurr. ekit.	Ekital.	Diru-lag.	
	Kapitala	saria	Erreserbak	emait.neg.	emaitza	legatuak	Guztira
SALDOA 2015EKO ABENDUAREN 31N	14.873	9.203	1.152	(3.943)	(150)	9	21.144
Aitortutako diru-sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	-	(194)	-	(194)
Bazkide edo jabeekiko eragiketak (*)							
2015eko ekitaldiko emaitzaren banaketa.....	-	-	-	(150)	150	-	-
SALDOA 2016KO ABENDUAREN 31N	14.873	9.203	1.152	(4.093)	(194)	9	20.950
Aitortutako diru-sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	-	(515)	-	(515)
Bazkide edo jabeekiko eragiketak (*)							
2016ko ekitaldiko emaitzaren banaketa.....	-	-	-	(194)	194	-	-
SALDOA 2017KO ABENDUAREN 31N	14.873	9.203	1.152	(4.287)	(515)	9	20.435

(*) Aurreko ekitaldiko emaitza lehenagoko ekitaldietako emaitza negatiboetara aplikatzea, honenbestez "Ondare Garbiaren beste bariazio batzuk" izan behar luke.



ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA

	Euroak milakotan	
	2017	2016
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik	(515)	(194)
Emaitzaren doiketak	(29)	7
Ibilgetua amortizatzea	57	63
Sarrera finantzarioak	(87)	(56)
Gastu finantzarioak	1	-
Kapital arruntean aldaketak	273	87
Izakinak	2.282	947
Zordunak eta kobratz. beste kontu batzuk	(2.128)	(1.662)
Beste aktibo arrunt batzuk	(105)	(90)
Beste pasibo arrunt batzuk	63	68
Hartzekodunak eta ordaintz. beste kontu batzuk	121	45
Beste aktibo eta pasibo ez arrunt batzuk	40	779
Ustiapen jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk	174	179
Interesen ordainketak	(1)	-
Interesengatiko kobrantzak	87	56
Ordainketak (kobrantzak) mozkinen gaineko zerga kontzeptuan	88	123
USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(97)	79
Tald. eta elkartut. enpresen inbertsioengatiko ordainketak	68	(45)
Beste aktibo finantzario batz. inberts. ordainketak	6	(7)
Desinbertsioengatiko kobrantzak	-	5
INBERTSIO JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK	74	(47)
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	(23)	32
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran	70	38
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	47	70





ERANSKINAK

A.1 ARAUDI APLIKAGARRIA

2017ko ekitaldian ezargarria den araudi nagusia honako hau da:

- 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapitalezko Sozietateen Legeari buruzko testu bategina onesten duena.
- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, EAEONALTB onesten duena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu araubidearen gaitan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartu eta EAEren Fundazio eta Partzuergoei ezargarria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
- 2/2017 Legea, apirilaren 11koa, 2017ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorra onartzen dituena.
- 1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontabilitate Plan Orokorra onesten duena.
- 1994ko abenduaren 28ko Agindua, Kontabilitate Plan Orokorra ibilgetuko enpresetara egokitzeko arauak onartzen dituena.
- Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 733/2010 Agindua, martxoaren 25ekoa, inguruabar jakinetan jarduten duten enpresa publikoen kontularitzako alderdiak onartzen dituena.
- 3/2011 Errege Lege-dekretua, azaroaren 14koa, SPKLTB onartzen duena.
- 2/2015 Errege Lege-dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.
- 5/2015 Errege Lege-dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.

Ondasun eta zerbitzuen kontratazioari dagokionez, SPKLTBren arabera, sozietateak aginte esleitzaileri izaera du eta kontratuak pribatuak dira. Europar Batasuneko gutxieneko mailak gainditzen dituzten kontratuak (erregulazio harmonizatuari lotuak) prestatzeari eta esleipenari dagokionez, berariazko araurik ezean, SPKLTBk arautuko ditu. Europar Batasuneko atalaseak gainditzen ez dituztenek, onetsitako eta kontratatzailearen profileen argitaratutako Kontrataziorako Barne Jarraibideak aplikatu beharko dituzte esleipenean. Kasu guztietan publikotasun, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta ez bazterkeria printzipioak gorde beharko dira.

Langileak kontratatzeari dagokionez, sozietate publikoa den aldetik, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioetara meneratua dago.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.2 IBILGETUKO INBERTSIOAK

Hona hemen xehakapena eta kontu-mugimenduak 2017an:

KONTZEPTUA	16.12.31	Euroak milakotan		
		Izakinak eskualdatzea (ikus A.3)	Gehitz zuzkid.	17.12.31
Kostua				
Azitaingo industrialdea (Eibar)	178	4	-	182
Basabeko poligonoa (Aretxabaleta).....	394	-	-	394
Markuleteko poligonoa (Arrasate)	1.681	1.249	-	2.930
Albitxuriko poligonoa (Elgoibar).....	186	-	-	186
Labegaraietako poligonoa (Bergara)	-	55	-	55
KOSTUA GUZTIRA	2.439	1.308	-	3.747
AMORTIZAZIO METATUA	(866)	-	(54)	(920)
IBILGETUKO INBERTSIOAK GUZTIRA	1.573	1.308	(54)	2.827

Idazpuru honek errentamendura emandako ondasun higiezinak jasotzen ditu. Ekitaldian sortutako 281.349 euroren diru-sarrerak “Negozio zifraren zenbateko garbia” idazpuruan erregistratzen dira (ikus A.7).

1,3 milioi euroren zenbatekoan izakinen eskualdaketa honako hauen kontularitzako balio garbiari dagokio: 2017an alokatutako bi pabiloi Markuleten, lokal bat Labegaraietan eta bulego bat Azitainen,



A.3 IZAKINAK

Hona hemen izakinen xehakapena eta kontu-mugimenduak 2017an:

POLIGONOA (UDALERRIA)	ibilget. inberts.		Besterengan.				17.12.31
	16.12.31	eskualdatzea (ikus A.2)	Gehik.	bajak (ikus A.7)	Zuzkid.	Lehengor.	
Kostua							
Eraikin berreskuratua	2.928	(192)	-	-	-	-	2.736
Torrebaso (Eskoriatza)	1.826	-	-	-	-	-	1.826
Markulete (Arrasate).....	427	(137)	-	-	-	-	290
Basabe (Aretxabaleta).....	327	-	-	-	-	-	327
Labegariaeta (Bergara).....	253	(55)	-	-	-	-	198
Azитай (Eibar).....	76	-	-	-	-	-	76
Mijoa I (Mutriku)	19	-	-	-	-	-	19
Lursailak eta orubeak	3.712	-	-	-	-	-	3.712
Mijoa II (Mutriku).....	2.750	-	-	-	-	-	2.750
Torrebaso (Eskoriatza)	416	-	-	-	-	-	416
Mijoa I (Mutriku)	384	-	-	-	-	-	384
Albitxuri (Elgoibar).....	162	-	-	-	-	-	162
Eraikitako eraikinak	12.404	(1.116)	125	(2.690)	-	-	8.723
Markulete (Arrasate).....	8.765	(1.112)	125	(2.690)	-	-	5.088
Mijoa II (Mutriku).....	3.284	-	-	-	-	-	3.284
Basabe (Aretxabaleta).....	305	-	-	-	-	-	305
Labegariaeta (Bergara).....	46	-	-	-	-	-	46
Azитай (Eibar).....	4	(4)	-	-	-	-	-
KOSTUA GUZTIRA	19.044	(1.308)	125	(2.690)	-	-	15.171
Narriadura							
Eraikin berreskuratua	(41)	-	-	-	(133)	12	(162)
Torrebaso (Eskoriatza)	-	-	-	-	(133)	-	(133)
Basabe (Aretxabaleta).....	(9)	-	-	-	-	9	-
Labegariaeta (Bergara).....	(32)	-	-	-	-	3	(29)
Lursailak eta orubeak	(1.353)	-	-	-	-	69	(1.284)
Torrebaso (Eskoriatza)	(69)	-	-	-	-	69	-
Mijoa II (Mutriku).....	(1.284)	-	-	-	-	-	(1.284)
Eraikitako eraikinak	(1.737)	-	-	322	-	13	(1.402)
Markulete (Arrasate).....	(1.032)	-	-	322	-	13	(697)
Mijoa II (Mutriku).....	(705)	-	-	-	-	-	(705)
NARRIADURA GUZTIRA	(3.131)	-	-	322	(133)	94	(2.848)
IZAKINAK GUZTIRA	15.913	(1.308)	125	(2.368)	(133)	94	12.323

Galera eta irabazien idazpuruko “hornidurak” idazpuruak honako kontzeptu hauek besarkatzen ditu:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	2017
Amaitutako sustapenen izakinetako bariazioa.....	(217)
Hirugarrenek egindako obra eta zerbitzuak	(125)
GUZTIRA	(342)

“Izakinen bariazioa” idazpurua hauetan zati-banatzen da:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	2017
Narriadurarako zuzkidura	(133)
Narriadura lehengoratzeara	416
Izakinen bariazioa Salmentagatiko bajak	(2.690)
Izakinen bariazioa Erosketengatiko altak	125
Izakinen bariazioa Ibilgetuko inbertsioetara eskualdatzea (A.2).....	(1.308)
Amaitutako sustapenen izakinetako bariazioa (horniduretan)	217
GUZTIRA	(3.373)

A.4 MERKATARITZAKO ZORDUNAK ETA KOBRATZEKO BESTE KONTU BATZUK

Hona hemen xehakapena:

	Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	17.12.31	16.12.31
Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak epe laburrera.....	401	297
Salmenta eta zerbitzu emakidengatiko bezeroak epe luzera	4.536	2.572
Hainbat zordun	105	45
Langileria	1	3
Zerga arruntak erag. pasiboak.....	111	88
Administrazio publikoekin beste kreditu batzuk.....	1	-
GUZTIRA	5.155	3.005

“Salmenta eta zerbitzuen emakidagatiko bezeroak” idazpuruaren saldoak erosketa-aukeradun errentamendu kontratuetatik abenduaren 31n kobratzeko dagoen kopuruari dagozkio nagusiki, zeinak salmentagatiko sarrera modura erregistratu ziren izenpetu zirenean, errentan emandako ondasunak izakinetatik baja eginez. 2,3 milioi euroren saldo baten jatorria dago 2017an izenpetutako bi kontratutan eta 2,6 milioi euroren beste saldo batena, lehenagoko ekitaldietan izenpetutako kontratuetan.

2017an erosketa-aukerarekin izenpetutako errentamenduko hiru kontratuen kobrantzak, baina, interesak izan ezik, bezeroen aurrerakin modura erregistratzen dira, eragiketa hauek salmenta modura erregistratzeko adinako baldintzak betetzen diren arte. 2017ko abenduaren 31n “merkataritzako hartzekodun eta ordaintzeko beste kontu batzuk” idazpuruaren kontzeptu honen pean erregistratutako saldoa 6.072 euro da.

Erosketa-aukera duten errentamendu-kontratuek eragindako diru-sarrera finantzarioak, 87.218 euro 2017an, zorpetu ahala erregistratzen dira.

A.5 TALDEKO ENPRESETAN ETA KIDETUETAN EGINIKO EPE LABURREKO INBERTSIOAK

Sozietatea SPRILUR Taldearen Diruzaintza Zentralizatuaren Sistemari dago jasoa eta horren arabera, sozietate filialek soberako banku-saldoak SPRILUR SA sozietate nagusian irekitako kontu korrontean sartzen dituzte. Idazpuru honek Sozietatearen aldeko saldoa aipatutako kontu zentralizatuan jasotzen du.

A.6 HORNIDURAK

Urteko mugimendua hau izan da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan				
	16.12.31	Gehikuntzak		Eskualdak.	17.12.31
		(Ikus A.9)	Kentzeak		
Epe luzeko hornidura.....	110	115	-	(110)	115
Epe laburreko hornidura.....	124	198	(234)	110	198
GUZTIRA	234	313	(234)	-	313

Hornidurak jasotzen du Elgoibarren Urruzunoko zabortege zaharraren mantentze-lan eta itxi ostean kontrolatzeko obligaziotik eratorritako kostuen balioespena; zabortegearen gainean Albitxuriko poligonoa eraiki zen.

Lurraren kalitatearen adierazpena eskuratzeko, 2013ko urtean Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Administrazioako Zuzendaritzak ebatzen bat egin zuen adieraziaz Debabarrengo Eskualdeko Mankomunitatearen ardura zela zabortegearen mantentze-lan eta itxi osteko kontrola. Sozietateak hitzarmen bat izenpetu zuen aipatutako Mankomunitatearekin mantentze-lanetatik eratorritako kostuen zati bat bere gain hartzeko.

A.7 NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA

Hona hemen epigrafe honen xehetasunak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	2017	2016
Amaitutako sustapenen salmenta (erosketa-aukeradun errentamendu kontratuak)	2.379	973
Amaitutako sustapenen salmenta (salmenta zuzenak)	212	-
Errentamendu operatiboak (ikus A.2)	281	267
GUZTIRA	2.872	1.240

Sozietateak 2017an Arrasateko Markulete Poligonoan erosketa-aukerako bi errentamendu kontratu izenpetu ditu –azken prezioa 2,4 milioi euro- lau nabe, sei bulego eta 33 garaje-plazaren gainean; horien guztien kontularitzako balio garbia 2,2 milioi euro da.



Gainera, Sozietateak aipatutako poligonoan pabiloi bat besterendu du 211.350 euroan, 199.531 euroren kontularitzako balio garbia duena.

A.8 LANGILERIA

Honako hauek dira langile gastuak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	2017	2016
Soldatak eta ordainsariak	218	228
Gizarte Segurantzza.....	62	62
GUZTIRA	280	290

2017ko ekitaldiko ordainsari-igoera orokorra % 1ekoa da 2016ko ekitaldiko ordainsari osoen aldean.

Eibarko Epaitegiko lan-arloko aretoaren epaien ondorioz, baliogabe geratu da 2015eko uztailearen 31z geroztik 2010ean egindako soldata-murrizketa. Sozietateak 2015 eta 2016ko ekitaldietako atzerapen kontzeptuan 8.983 euro ordaindu ditu eta 2017ko ordainsariak doitu ditu.

2017an 2012ko abenduako aparteko ordainsariaren % 48,89 ordaindu da, uztailearen 13ko Errege Dekretu-legea aplikatuta kendu zena, aurrekontuaren egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa. 2015 eta 2016an ordainsari honen gainerakoa ordaindu zen (% 51,11).

2017ko abenduaren 31n Sozietateak lan kontratu mugagabea duten bost langile eta txanda-kontratuko langile bat ditu.

A.9 USTIAPENEN BESTE GASTU BATZUK

Hona hemen epigrafe honen xehetasunak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	2017	2016
Konponketak eta artapena.....	147	25
Profesional independenteen zerbitzuak	48	65
Aseguru primak	15	16
Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak.....	-	1
Hornidurak	9	8
Jabe-erkidegoen gastua	74	39
Bestelako zerbitzuak	22	22
Zergak	99	67
Urruzuno hornitzeko zuzkidura (ikus A.6).....	313	-
GUZTIRA	727	243



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Konponketa eta zaintza gastuek gora egin dute 2017ko ekitaldian Arrasateko Markuleteko poligonoan, batik bat besterendutako lursailen zatian egindako obren ondorioz, atzemandako eraikuntzako akatsak zuzentzeko.

A.10 KONTRATUEN ANALISIA

2016ko eta 2017ko ekitaldietan esleitutako kontratu hauek aztertu dira:

Zk. KONTZEPTUA	Kontr.mota	Euroak milakotan					
		Eseleipena			Exekuzioa		Akatsa
		Urtea	Zenbat.	Prozed.	2016	2017	
1. Arambeltz erreka galerian obrak	Obra	2017	98	irekia	-	65	
2. II. FASEA- Albitxuriko polig. gasa hartu eta kudeatz. proiekt. Urruzuno zabortege zaharra	Zerb.	2017	20	Zuzena	-	20	
Luzapena.....			22		-	22	
F-12 C Markulete poligonoan konponketak							
3. P3/14 konpontz. egikaritzea proi. eta obra zuzendaritzea.....	Zerb.	2016	24	Zuzena	13	11	
4. P3/14 urbanizazioa eta konponketa.....	Obra	2016	31	PGN	15	19	
5. P3/14 estalkien konponketa.....	Obra	2016	28	PGN	-	33	
6. P3/14 arotzeria/errementaritzea.....	Obra	2016	16	PGN	-	21	
7. P3/14 beira konponketa	Obra	2016	4	PGN	-	5	
8. P5/6/7 lizit. agiria idaztea, obra zuz. eta Giz. Seg. konp.	Zerb.	2017	13	Zuzena	-	5	
9. P5/6/7 urbanizazioa eta konponketa.....	Obra	2017	62	PGN	-	69	
10. P5/6/7 estalki metalikoa. Konponketa.....	Obra	2017	30	PGN	-	30	
11. P5/6/7 arotzeria/errementaritzea.....	Obra	2017	5	PGN	-	5	
12. Kanpoko argiteria egokitzeko agiri teknikoa idaztea	Zerb.	2017	2	Zuzena	-	1	
13. Kanpoko argiteria egokitzeko obraren zuzendaritzea.	Zerb.	2017	1	Zuzena	-	-	
14. Kanpoko argiteria egokitzea.....	Obra	2017	38	PGN	-	-	
15. P9/10/11 lizit. agiria idaztea, obra zuz. eta Giz. Seg.	Zerb.	2017	24	PGN	-	-	
GUZTIRA			418		28	306	

(*) NSP: Publizitaterik gabeko negoziatua





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DEBA BAILARAKO INDUSTRIALDEA SAREN 2017KO EKITALDIKO FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

I. SARRERA

Deba Bailarako Industrialdea SAREN 2017ko ekitaldiko fiskalizazioaren emaitzei erantzuteko asmoz, sozietateak horri lotuta aurkeztu dituen alegazioak eta justifikazioak erantsi zaizkio txosten honi. Kontrol Ekonomikoko Bulegoak zentralizatu ditu horiek guztiak.

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEATZEKO PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK

III.1 KONTRATAZIOA


“Sozietateak ez ditu inskribatu EAeko Kontratuen Erregistroan ekitaldi horretan zehar egin dituen kontratu guztiak; baina inskribatu beharra ezartzen da uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoa) 52. eta 55. artikuluetan.”

Sozietatea, oraintxe bertan, kontratazio-datuak sartzen ari da Kontratuen Erregistroan. Beraz, laster egoera konponduta egotea aurreikusten da, hau da, erosketa guztiak erregistratuta egotea.

“2017. urtean luzatu egin dira garbiketari eta lege-aholkularitzari lotutako kontratuak (2012an eta 2015ean sinatu zirenak, hurrenez hurren). Kontratu horietan, izan ere, denbora-mugarik gabeko isilbidezko luzatzeak jasotzen ziren. Segidako traktua duten kontratuak direla kontuan hartuta, sozietateak prozedura jakin bat bete beharko luke horiek lizitatzean: zenbatespen ekonomiko erreala betez eta lehiarako aukera ematen duen denbora-muga batekin.”

Sozietateak hiru garbiketa-enpresari eskatu zien eskaintzak aurkezteko 2018ko azaroan, hilean 300 euro inguruko zenbatekoan.

Baina denek egin zioten uko zerbitzuak emateari, ez baitzuten bere gain hartu nahi Garbialdi enpresaren langilearen subrogazioa.





ABREVIATURAS

CAE	Comunidad Autónoma de Euskadi.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
IIC	Instrucciones Internas de Contratación.
STC-ELS, SA	Sociedad para la Transformación Competitiva-Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SA.
TRLCSP	Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
TRLPOHGPV	Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.





I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (en adelante el Tribunal), de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988 y en el Plan de trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha fiscalizado las cuentas anuales del ejercicio 2017 de Deba Bailarako Industrialdea, SA (en adelante la Sociedad).

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- Legales: revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas de presupuesto, personal y adquisición de bienes y servicios.
- Contables: conformidad de las cuentas anuales con los principios contables que le resulten de aplicación. La Sociedad se encuentra auditada, por lo que nuestro trabajo ha consistido en una revisión de los papeles de trabajo de los auditores, realizando, en su caso, las pruebas complementarias que hemos considerado necesarias.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis de la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe del informe denominado “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

La Sociedad se constituyó el 19 de septiembre de 1984 con la denominación inicial de Elgoibarko Industrialdea, SA.

